



ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2016

□ Txapelketa sistema:

Txapelketak ondorengo faseak izango ditu:

- a) Lehenengo kamporaketa fasea.
- b) Final 1/8etako fasea.
- c) Final 1/4etako fasea.
- d) Finalerdietako fasea.
- e) Hirugarren eta laugarren postuetarako partida (kontsolamenduzko finala) eta Finala.

➤ Lehenengo kamporaketa fasea:

Lehenengo kamporaketa fasea 2016eko apirilaren 17. erreferentzia moduan izango duen jardunaldi bakarrean ospatuko da.

Dagokien partidetan irabazten duten pilotariak sailkatuko dira final-zortzirenetako.

Lehenengo kamporaketa fasea hasi aurretik pilotari batek ezin badu txapelketan parte hartu, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du.

➤ Final-zortzirenetako fasea:

Final zortzirenetako fasea 2016eko apirilaren 24. erreferentzia moduan izango duen jardunaldi bakarrean ospatuko da.

Dagokien partidetan irabazten duten pilotariak sailkatuko dira final-laurdenetako.

Fase honetarako sailkatutako pilotari batek ezin badu bere partida jokatu, bere kontra jokatuko behar zuen pilotaria sailkatuko da zuzenean hurrengo faserako.



➤ Final-laurdenetako fasea:

Final-laurdenetako fasea 2016eko maiatzaren 1. erreferentzia moduan izango duen jardunaldi bakarrean ospatuko da.

Dagokien partidetan irabazten duten pilotariak sailkatuko dira final-erdietarako.

Fase honetarako sailkatutako pilotari batek ezin badu bere partida jokatu, bere kontra jokatuko behar zuen pilotaria sailkatuko da zuzenean hurrengo faserako.

➤ Finalerdietako fasea:

Finalerdietako fasea 2016eko maiatzaren 15. erreferentzia moduan izango duen jardunaldi bakarrean ospatuko da.

Dagokien partidetan irabazten duten pilotariak sailkatuko dira finalerako.

Fase honetarako sailkatutako pilotari batek ezin badu bere partida jokatu, bere kontra jokatuko behar zuen pilotaria sailkatuko da zuzenean hurrengo faserako.

➤ Hirugarren eta laugarren postuetarako partida (kontsolamenduzko finala) eta Finala

Hirugarren eta laugarren postuetarako partida, edozein kasutan ere, 2016eko maiatzaren 22. ospatuko den partida bakarrean jokatuko da.

Finala, hasieran behintzat, 2016eko maiatzaren 29an ospatuko den partida bakarrean jokatuko da.

Pilotari batek 3. eta 4. postuaren arteko partiduari uko egin ezker bidezko arrazoirik gabe, partida galdutzat emango zaio eta txapelketaren ranking edo sailkapenean kontuan hartuko da. Kasu horretan, bidezko arrazoirik gabe partida horri uko egiten dion pilotariak ez du talde-buru baldintza edukiko hurrengo txapelketan.



Gertaera ezberdinengatik finalan parte hartu behar duen pilotari batek ezin badu partida haseran finkatutako datan jokatu, hau atzeratu ahal izango da EPEL.eko Epaile Bakarrak horrela baimentzen badu. Haseran jarritako datan finala jokatu ezin duen pilotariak EPELari abisatu beharko dio, gertaera hoiek ematen diren momentuan bertan. Eskaera hori bere osasunarekin erlazionatzen diren arazoekin lotzen bada, pilotari horrek bere enpresako medikuak egindako txostena aurkeztu beharko du. Txosten horretan medikuak jarri beharko du bere iritziz noiz pilotari hori prest egongo den finala jokatzeko.

EPELeko Txapelketako Epaile Bakarra, gertaerak aztertu ondoren, erabakiko du atzerapena onartzen duen ala ez; eta atzerapena baimendu ezkerok finala jokatzeko data berri bat finkatuko du. Data berri hau jarri behar izan ezkerok, 2016eko ekainaren 5 baino lehenago jartzen saiatuko da.

Finalerako sailkatutako pilotari batek ezin badu EPEL.eko Epaile Bakarrak jarritako datan finala jokatu, bere lekua hirugarren eta laugarren postuetarako partida (kotsolamenduzko finala) irabazi duen pilotariak okupatuko du.

2016eko Eskuz Banakako Txapelketan lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren amaitzen duten pilotariak zuzenean sailkatuko dira talde-buru gisa txapelketaren hurrengo ediziorako. Zuzeneko sailkapen hori pilotaria LEP.M-k osatutako enpresei atxikituta jarraitzearekin dago baldintzaturik. Automatikoki sailkatutako pilotarietako batek ezin baluke hurrengo edizioko txapelketan parte hartu, bere enpresa izango da hutsune hori beteko duen pilotaria hautatzen duena.

□ Luzapenak:

Espreski finalerako aurreikusitakoa izan ezik, ez da inolako atzerapenik egingo partiduekiko. Horrela, ez da posible izango ere inolako epaiketarik egitea ezarritako faseetako partiduen daten inguruan.

□ Atsedenaldiak:

Txapelketa honetan atsedenei dagokien guztia, EPELeko Atsedenen Araudiaren bitartez arautuko da.



□ Sake:

Pilotari bakoitzak sake bakarra izango du, aurkariaren alde tantu moduan zenbatuak izanik bai "labur" edo faltako marrara ailegatzen ez diren sakeak, baita "luze" edo pasako marra gainditzen dutenak.

□ Doping-aren kontrako kontrolak:

Txapelketan zehar doping-aren kontrako kontrolak burutu ahal izango dira. Kontrol hauek EPELeke ezarritako Doping-aren Kontrako Araudian oinarrituko dira.

□ Txapelketatik bazterzea:

EPELeke konturatuko balitz pilotari bat ez dagoela txapelketa honetan jarraitzeko baldintza fisiko egokietan, EPELeke Txapelketako Epaile bakarrak, Kirol Batzordeari eta pilotariari berari entzun eta gero, pilotaria txapelketatik kanpo utzi ahal izango du.

□ Bestelako arazoen inguruko erabakiak eta araudiaren interpretazioa:

EPELeke Txapelketako Epaile Bakarrak erabakiko du araudi honen interpretazioan sor daitezkeen arazoen inguruan; baita ere araudi honek aurreikusten ez duen edozein gertaeraren inguruan sortutakoak. Bere erabakia apelaezina izango da.

□ Azken xedapena:

Txapelketa hasirik, LEP.M-ak, dagokion hitzarmena eskuan harturik, ahalko ditu garapen eta aldaketa xedapenak diktatu oraingo arautegian aurreikusitakoan; bereziki bat-bateko eta aurreikusi gabeko egoerek salbuespen akordio bat justifikatzen dutenean